



# HERRIGUNEA MEATZERREKA





## HERRIGUNEA - MEATZERREKA

Ibilbide honek herrigunea lotzen du Meatzerreka meatze auzoarekin, Udalatxen magalean kokatua. Meatzerrekan ikusi daiteke San Balerio ermita, benakeroen (mehatokietako langileak) batzartokia izan zena. Ermita horren lehen aipamen dokumentatua da 1434koa.



MIDE

MIDE	<p><b>Ibilbidearen maila teknikoa eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienera.</b></p>	<b>Denbora</b>		<b>1h 45'</b>
		<b>Igoera desnibela</b>		<b>274 m</b>
		<b>Jaitsiera desnibela</b>		<b>274 m</b>
		<b>Distantzia horizontala</b>		<b>6,1 km</b>
		<b>Ibilbide mota</b>		<b>Zirkularra</b>
		<b>Ingurune naturalaren gogortasuna</b>		<b>1</b>
		<b>Orientazioa ibilbidean</b>		<b>2</b>
		<b>Zailtasuna desplazamenduan</b>		<b>2</b>
		<b>Egin beharreko esfortzua</b>		<b>2</b>



MAPA



IBILBIDEAREN AZALPENAK

▪ **(A) Monterron parkea.** Ibilbidea hasten da Monterron parkean. Hartzen du bidegorrian ezkererantz, eta 300 metrora eskuinerantz, eskaileretan gora. Aurrerago ezkerreko bidexka hartzen du, eta hortik aurrera irteten du Kanpanzarreko errepide bazterrera (GI 3551). Segitzen du aurrera Ugaldeazpi baserriraino eta iristen da Meatzerreka auzora eta gero zuzen, San Balerio ermitaraino.

▪ **(B) San Balerio.** Gero zuzen segitzen du aurrera. Laster errepide asfaltatua pista bihurtuko da, eta hortik aurrera. Pista bukatutakoan berriro ere irteten du errepidera, Santutxora. Han egiten du aurrera zuzen Meatz Erreka elkartera. Aurrerago, iturriaren ondotik hartzen da eskumako bidea Etxaldebarriantantz. Gero, utzi ezkerrean baserria eta aurrera segitzen du pistatik. Hortik zuzen doa, aldapatxo baten ostean iritsi arte Ormaixio bidegurutzera. Han hartzen du beheanzko bidea, eta bide nagusitik San Kristobalgo hilerriraino.

▪ **(C) San Kristobal.** Bidea pasatzen da kanposantuaren eskumatik, eta aurrerago hartzen du ezkerrean doan pista. Pixka bat aurrerago hartzen du ezkerrean, eta pasatzen da San Kristobal ermitaren aztarnen aurretik. Gero, bidexkatik berriro itzultzen da irteera puntura.



15  
2015  
HM




▪ **San Balerio ermita:** ez badakigu ere noiz eta nork eraiki zuen, badirudi haren jatorria galtzen dela gure aroaren lehen mendeetan. Eliza eginkizunak bete zituen, baina San Balerioko meatzarien kofradiaren egoitza ere izan zen, 1434an sortu zenetik 1958an desegin zen arte. Ermita barruan deigarriak dira ganga polikromatua eta erretaula. Tradizioak dioenez, erretaulari hiru buelta emanaz gero erlojuaren kontrako noranzkoan, buruko minak sendatzen dira.

14  
2015  
HM



▪ **San Balerio parkea:** lursail hau, auzoko ermitari lotua, kofradiarena zen. Garai batean mahastiak izan ziren bertan, eta ateratako ardo goxoa banatzen zen San Balerio egunean. Lursaila udalak erosi zuen 2014. urtean. Hurrezkeron, lan batzuk egin dira bertako basoa errekupeartzeko.

13  
2015  
HM



▪ **Urzulo iturburua:** Arrasate hornitzen zuen iturburu nagusia zen, Urkuluko urtegia egin aurretik. Gaur egun ere hainbat ere hornitzen ditu. Bertara iristeko ibilbidetik 100 m desbideratu behar da ezkerrera.

6  
HM



▪ **San Kristobal ermitaren aztarnak:** San Kristobalekoa zen leku estrategiko paregabea. Han bizi zen eremitak kanpaia jotzen zuen herritarrak erasoez eta ekaitzez ohartarazteko. Gainera, herriko historiaren lekukoa izan da: besteak beste, ermita inguruan erabaki baitzen 1448an Arrasate suntsitu zuen sutea piztea.

- GR 121 Bizkar bidea (Gipuzkoako bira)
- PR-Gi 205 Anporretako bira, burdinaren bidea
- Arrasateko bira
- Arrasate-Elorrio Erregebidea